

CHORI BERRIKETARIA. ¹



M. DOYHARÇABAL DONIBANE-LOHIZUNEOAK EGINA.

Sor-lekkua utziz geroz (ondikoz hala beharrez!)
 Jainko ona urrikalduz bethiko nere nigarrez,
 Primaderan hasi orduko arbolak estaltzen lorez,
 Choritto bat heldu da bethi nere herritik hegalez.

Nere gana hain urrundik ethortzean unhatua,
 Arbolarik hurbilena du bere pausa-lekhua.
 Adachka goren-gorenean hara non den lokhartua;
 Lumapean zango bat-eta hegalpean du burua.

»Pausa hadi, lo egizak, ckori maitea, bakean!
 »Atzarria, ni hire zain, hemen nauk hire aldean;
 »Ur chortarekin huna gero papurrak leiho gainean;
 »Bainan gero hango berriez orhoit hadi atzartzean.


»Orhoit hadi Lai, choria, herri maiteko berriez,
 »Nere aita, nere ama, nigarretan nik utziez;
 »Mintza hakit ahaidez-eta, mintza lagun on hekiez;
 »Mintza, nihor ahantzi gabe, maite ninduten guziez.

»Atzar hadi, atzar bada, berriketari abila;
 »Ene beldur izan gabe, jaux hadi hurbil-hurbila;
 »Erran leihoan izan haizen erradak ichil-ichila,
 »Izan ere, hunatekoan, solas ordainaren bilha.

»Choria, lo hagolarik, ikharan nagok aldean;
 »Ez ahal da zorigaitza maite nautenen artean!
 »Hala balitz, othoi, choria, berriz herrira heltzean,
 »Loretto bat nigar batekin pausa zak tomba gainean.»

Chorittoa goan denean hostoen eror demboran,
 Berriz ethor ez dadien nago beldurrez ikharan.
 Ihiztaria, hartzen baduk ene choria segadan,
 Utzak, othoi, gaichoa libro, berriak ekhar detzadan.

M. DOYHARZABAL.



(1) Esta sentida composicion labortana fué premiada en el Concurso poética de Sara, en 1871, al que fué presentada con el nombre de M. Doyharzabal, bajo el que se encubre, segun nuestras noticias, una persona muy conocida en San Juan de Luz. En el próximo número daremos á conocer la traduccion francesa de la misma.